

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **230/2021 Foru Agindua, irailaren 2koa. Interes publikoa adieraztea Ametzaga Zuiako hondakin uren ponpaketa estaziorako, Zuiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko proiektuari**

Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarrak lizentzia eskatu dio Zuiako Udalari autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzeko herriko hondakin urak ponpatzeko estazioan, 1 poligonoko 2.475 lurzatian.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean sartuta daude proiektu tekniko eta udal arkitektoak emandako txostena, eta bertan ageri da lurzatia lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta Z.8 Nekazaritzako, abeltzaintza eta landazabaleko intereseko zonaren kalifikazioa dituen lursailean dagoela.

Proiektuan jasotzen denaren arabera, haren xedea da Ametzagako HUPEn autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eguzki instalazio fotovoltaiko bat jartzea, energia kontsumoa egungo kontsumoaren ehuneko 70 baino gehiago gutxitzeko dimentsionatua. Proiektua lurtean egitura finko bat muntatzean datza, errendimendu handiko 7 eguzki moduluko bi katetan banatuta. Eguzki arloak guztira 30,40 metro koadro hartuko ditu eta haren potentzia tontorra guztira 6,3 kWp izango da, sistemaren potentzia nominala 6 kW izanik.

Bat etorri Zuiako udalerriko plangintzako arau subsidiarioak 139.1 artikuluan aurreikusitakoarekin, onura publikoko eta gizarte intereseko azpiegiturak baimentzen dira "lurzoru urbanizaezineko zona guztietan, salbu eta instalazio horien lizentzia izapidetzeko prozesuan organo eskudunak egokitzen ez dituen zonetan izan ezik..."

Espedientean jasotzen da Zuiako Udalak 2020ko abenduaren 10ean osoko bilkuran hartutako erabakia. Erabaki horren bidez, udalbatzak bere egin zuen txosten juridikoa, zeinaren bidez onetsi baitzen urbanizaezintzat sailkatutako lurzoru osoan onura publikoko azpiegiturak edo instalazioak jartzea, betiere aurrez instalazio zehatzaren onura publikoaren eta gizarte interesaren adierazpena eskuratuta.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. 2021eko uztailaren 27an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak delako ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez erabakitzeko organo eskuduna, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sail honen egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatuzetik babesten duen landa egoeran

dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilerara batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde plangintzak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeiei egunez jendaurrean jartzeko izapidea bete ondoren.

Uztailaren 15eko 195/2021 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2021eko uztailaren 28ko ALHAOn (84. zenbakia) argitaratu zen, eta ez zen inolako alegaziorik jaso hartarako eman zen epean.

Bigarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Sektore Elektrokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak honako hau ezartzen du 2.2 artikuluan: "Energia elektrokoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da". Proiektatutako instalazioaren ezaugarri zehatzei dagokienez, energia berriztagarriei eta trantsizio energetikoari buruzko araudia aplikatu behar da.

Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, zioen azalpenetik, energiaren hornidurak eta erabilerak pertsonen bizitzarako duten berezko izaera jasotzen du, eta energia berriztagarriak eta energia horiekin egindako emisioen murrizketa azpimarratzen ditu. Euskadiko 2030 Estrategia Energetikoak helburuen artean ezarri zuen energia alternatiboak aprobetxatzea eta berriztagarrien kuota nabarmen igotzea 2030. urtera begira.

4/2019 Legearen helburuen artean, energia kontsumoa murriztea eta jasangarritasun energetikoa bultzatzea eta sustatzea nabarmentzen dira, energia berriztagarriko instalazioak ezartzearen bidez ingurumena babestea azpimarratuz. 4/2019 Legearen 4. artikulua iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren definizioa jasotzen du, eta iturri ez fosiletatik eskuratutako energia gisa definitu, eta berariaz aipatzen ditu energia eolikoa, hidraulikoa, geotermikoa, eguzki energia eta beste batzuk. Lege bereko 5. artikulua lege horren helburuak ezartzen ditu, eta b) apartatuan honako hau jasotzen du: "energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko".

Bestalde, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) lurralde ereduaren oinarrien artean ezartzen dute, lehenik eta behin, lurralde jasangarria, eta berariaz jasotzen da energia berriztagarriak, beste teknologia batzuen artean, gero eta gehiago txertatu behar direla gure lurraldearen eraikuntzan.

Memoriak, baliabideen kudeaketa iraunkorrari buruzko zortzigarren atalean, energia hartzen du hizpide eta, besteak beste, honako hau ezartzen du: "Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak Euskadiko 2030 Energia Estrategiaren (3E-2030) bi ardatz nagusiak dira, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko. "Lurralde-estrategiaren energiaren alorrean beste zenbait erronkari ere heldu behar zaie, hala nola energia-eraginkortasunaren eta -efikaziaren igoera nabarmenari; deskarbonizazioari, energia berriztagarrien iturrien erabilerara orokortuz; eta energia-autosufizientziarantz aurrera egiteari. (...)

2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ikuspegiak honako xede hauek ditu: 2050erako energia-erabileretarako petrolio-kontsumoa zero izatea, eta horrek garraio-sistemaren egiturazko aldaketa eskatzen du; 2050erako Klima Aldaketaren Euskal Estrategiaren helburuak betetzen laguntzea, hau da, Euskadiko BEGen emisioak gutxienez % 40 murriztea 2030erako eta gutxienez % 80 2050erako, betiere 2005. urteko datuekin alderatuta, eta 2050. urtean energia berriztagarriaren kontsumoa % 40 izatea azken kontsumoaren gainean; eta, mende honek aurrera egin ahala, erregai fosilak erabat baztertzea eta BEGen zero emisio lortzea, energia berriztagarriak energia-hornidura bakarra izanik.

2030erako Euskadiko Energia Estrategiak ezartzen du 2030ean amaitzen den aldian honako helburu hauek bete behar direla: (...)

2. Energia berriztagarrien erabilera % 126 indartzea, energia berriztagarriek % 21eko kuota izateko azken kontsumoan. (...)

5. Elektrizitatea sortzeko kogenerazioaren eta energia berriztagarrien proportzioa igotzea (batera hartuta % 20tik % 40ra 2015etik 2030era bitartean). (...)

Hortaz, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak Euskadiko Energia Estrategiaren bi ardatz nagusiak dira, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko (...):

Estatu eremuan, Klima Aldaketa eta Energia Trantsizioaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legea lotuta dago arlo horretako EBren helburuekin eta Itun Berdearen hazkunde estrategiarekin. Hala, hitzaurretik bertatik, erabaki hau nabarmentzen du: "klima aldaketaren aurkako borroka eta energia trantsizioa ekintza politikoaren erdigunean jartzea, etorkizuna eraikitzeke eta ekonomia aukera berriak sortzeko ekonomiaren eta gizartearen giltzarri gisa. (...) legeak ziurtatu behar du 2050 baino lehenago negutegi efektuko gas emisioen neutraltasuna lortzea Espainian, baita energia sistema efiziente eta berriztagarri bat ere (...)"

Zehazki, 3. artikuluan ezartzen dira "2030erako nazio mailako gutxienezko helburuak, bereganatutako nazioarteko konpromisoak betetzeko, eta autonomia erkidegoen eskumenak gorabehera:

a) 2030erako, Espainiako ekonomia osoko negutegi efektuko gas emisioak gutxienez % 23 murriztea 1990ekoekin alderatuta.

b) 2030ean, jatorri berriztagarriko energien kuota azken energia kontsumoan gutxienez % 42 izatea.

c) 2030ean, sistema elektrikoan jatorri berriztagarriko energien sorkuntza gutxienez % 74 izatea. (...)

2. 2050 baino lehenago, eta betiere ahalik eta epe laburrenean, Espainiak klima neutraltasuna erdietsi beharko du (...) eta sistema elektrikoak bakar-bakarrik jatorri berriztagarriko sorkuntza iturrietan oinarritua izan beharko da. (...)"

Era berean, eguzki energia fotovoltaikoan oinarritutako energia berriztagarria sortzeko instalazioak Energia eta Klimaren 2021-2030 Plan Nazional Integratuan daude aurreikusita, zeina Ministro Kontseiluaren 2021eko martxoaren 16ko Akordioaren bidez onetsi baitzen (BOE, 77. zk., martxoaren 31koa). Plan horretan, modu zabalean jasotzen dira instalazio horien helburuak, neurriak eta inpaktu azterketak. Adierazi behar da 3.1.1 puntuan ("Energia berriztagarriak sustatzeko neurriak") honako hau ezartzen dela: "Deskarbonizazio helburuak erdiesteko, beharrezkoa da, oro har, energia berriztagarriak eta bereziki sektore elektriko berriztagarriak neurri handi batean garatzea eta eskariaren zati esanguratsu bat elektrifikatzea. Ondoren proposatzen diren neurriekin, espero da energia berriztagarriak 2030ean azken energia eskariaren % 42 izango direla, eta ekoizpenaren % 74 sistema elektrikoan (...)"

Instalazioa landa ingurunean kokatzeko beharrari dagokionez, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da lur horietan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa adieraztea Ametzaga Zuiako hondakin uren ponpaketa estazioarako, Zuiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko proiektuari, bat etorri lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio, egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 2a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*